

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Laneko Ikuskatzailetzak areagotu egingo du lan-harremanen zaintza krisi ekonomikoagatik

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Nafarroako eta estatuko batzordeak 2012ko jarduerak planifikatu ditu

Lunes, 20 de febrero de 2012

Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Lurralde Batzordea Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko eta Nafarroako Gobernuko ordezkariak osatzen dute. Gaur goizean elkartu dira 2011n egindako lanaren balantzea egin eta 2012ko jarduerak planifikatzeko.

Batzordearen ikuskatze-jarduerak hauek dira: laneko arriskuak saihestea, enplegua eta lan-harremanak, Gizarte Segurantza eta ekonomia irregularra, eta atzeritarren lana.

Batzordekideek krisi ekonomikoaren eragina azpimarratu dute. Horrek ikuskapenaren aurreikuspenak abagune honetara doitzera behartzen du. Ildo horretatik, 2012ko programan [2007-2010erako Laneko Seguratasunaren eta Osasunaren Espainiako Estrategiak](#) ezarritako helburu, lehentasun eta jarduteko ildoak mantentzea erabaki da, eta laneko arriskuen prebentzioko arauak azken aldaketetara egokituko dira. Gainera, lan-harremanen eta enpleguaren zaintza areagotuko da, lan-merkatua mugatzen duen egoera ekonomiko-soziala dela-eta.

Batzordeak Gizarte Segurantzaren planifikatutako jardura indartzea erabaki du, honako hauetan iruzurra gertatzen ez dela behatuz: kokapenak araubide desegokietan; Gizarte Segurantzari zor dioten enpresak; ondorengotzak, enpresen taldeak eta azpikontratazioak; Gizarte Segurantzaren prestazioak; baja desegokien edo azpikotizazioen kontrola, eta hoberi desegokiak.

Horrez gain, 2012ko jarduteko ildoan artean, Batzordeak aitortu gabeko lana edota prestazio desegokiak eskuratze aldera enpresa faltsuen sorrera eragozteko atzeritarren lanari eta legez kontrako ekonomiaren inguruko jardueretan ahaleginak areagotuko ditu, hainbat urtean behin egiten den 2010eko martxoaren 5eko [Zerga, Lan eta Gizarte Segurantzarekiko Iruzurra Saihestu eta Zuzentzeko Plan Integralari](#) jarraiki.



Nafarroako Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzailetzaren Lurralde Batzordearen bilera

Batzordekideak

Topaketa Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzaren egoitzan izan da. Batzodeburua Imelda Lorea Nafarroako Gobernu Lan eta Arriskuen Prebentzioko zuzendari nagusia izan da, eta berarekin batera izan da Carmen Alba Nafarroako Gobernuko ordezkaria. Nafarroako Gobernuaren ordezkari gisa, Javier Zubicoa Lan Zerbitzuko zuzendariak eta Alberto Margallo Nafarroako Lan Osasun Institutuko zuzendari kudeatzaileak hartu dute parte bileran. Espainiako Gobernuaren aldetik, Milagros García Cobo Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren kudeaketan laguntzeko zuzendariorde nagusiak, Julián Sáinz eta Enrique Calvo GSINeko eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorreko probintzia-zuzendariak, hurrenez hurren, eta Guillermo Dachary Lan Ikuskatzailetzako lurralde-zuzendariak hartu dute parte.

Lurralde-batzorde hori, Idazkaritza Nagusi Teknikoaren 2000ko ekainaren 7ko Ebazpenaren arabera, Lan eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren (gaur egun Enplegu eta Gizarte Segurantza) eta Nafarroako Foru Erkidegoaren arteko alde biko akordioaren ondorioz sortu zen Lan eta Gizarte Segurantzaren Ikuskatzailetzaren jardun aktibo eta planifikatua burutzeko eta, hartara, Nafarroako interesei eraginkortasunik handienarekin erantzuteko, baita gizarte-eragile, organismo autonomo eta erakunde kudeatzaileen eskaerei ere.